

3. FUNTSEZKO ALIATUAK

Gure radarra aurrera eramateko, zenbait aliatu eduki nahi ditugu; sortzen, hobetzen eta saltzen lagun diezaguten.

Lehenik eta behin, IRC radarrak izango litzateke, gure radarra sortzen lagun diezagun, sistema ezagutzen baitute, eta, horrela, merkatuko produktu eraginkorrena eta kualifikatuena izango litzateke.

Bigarrenik, teknologiako marka "handiak" izango lirateke, hobetzen lagunduko digutenak eta merkatuan era guztietako pertsonentzat eskuragarriagoa izango direnak, adibidez; Xiaomi (merkatuan produktu dezente dituen marka bat da, patinete elektrikoak ere baditu, eta gero eta gehiago ikusten dira errepideetan), Samsung (bere produktuak merkatuko salduenetarikoak izan ohi dira)...

Eta, azkenik, txirrindularitzarako dendak edo markak izango lirateke, radarra bizikletentzat baita, adibidez: Orbea, CDR Bicicletas (Eibar), EBK Eibarko Bizikletak, STAR BIKES (Gasteiz)...

